

Galdera

Eskuz tintatutako poltsak egin ditugu eta etiketatxoak jarri nahi diegu: *eskuz egina*, *eskuz eginda*, *eskuz egindakoa*... Nola jarri behar dugu?

Erantzuna

Gure ustez, hirurak dira egokiak: *eskuz egina* / *eskuz egindakoa* / *eskuz eginda*

1/ Lagin bat hartu dugu Interneten, eta lehena agertzen da maizenik, ondoren bigarrena eta azkenik hirugarrena, hurrenez hurren.

2/ Hiztegietan:

eu eskuz egina

es hecho a mano

fr *fait à la main*

[eskuz — Elhuyar Hiztegia](#)

[eskuz egin — Labayru Hiztegia](#)

3/ Sarean aurkitu ditugun irudi batzuk:

